

Txillardegi

## Zezen hilketa erraldoien garaia

**H**eldu da, bai. Gure herrietako jaietan, Espainiako herrietan bezala, zezenak chunka hiltzeko garaia da. Horra hor, oraindik ere XXI. mende hasiera honetan Fiesta Nacional delakoaren odol zerga zezenek ordaindu beharra. Eta gu orpoz orpo jarraitzen gaitzazkie espainiarrei. Baina badantzut: espainiar Fiesta Nacionala gurea ere badela aspaldidanik, zeharo errotua dagoela, eta gure herrietan erauzi nahia, alfer lana dela. Eta benetako Fronte Tauromakiko bat osatu duten PNV, PSOE eta PP alderdiek, zezenketei nola edo hala eusten diete.

Gipuzkoako Batzar Nagusietan, ekain honetantxe, PNV, PSOE eta PPren botoari esker, zezenketen abolizioaren aldeko mozioa gaitzetsi zuten. Bapol Areago. Zezenketak debekatzeko saio guztien kontra altxatzen dira hirurak ideia bera hozitzen hasi baino lehenago. “Tortura ez da kultura” aldarrikatzen dugu guk, astakeria hori, krudelkeria hori, tortura hori, geure zezen-plazetatik uxatu nahi dugulako. Baina gure arteko eta Espainiako taurofiloak baturik, kezkatutik, oihuka hasten dira: “¿Cómo, unas fiestas sin corridas? Pues sólo nos falta eso!”. Eta Donostiako Ilunbez oroitzuz, zezen-plaza izaerari utzi, eta kirol eremu publikoa bihurtzeko asmo egokiari “errealismo falta” egotzi diote. Eta kito.

Kataluinaren ekinbidera hurbiltzeko eskatzen dugu guk, eta “rito sacrificial” higuinarritik aldentzeko; baina Fronte Tauromakiko espainiar hirukoitzak baradera eta traba guztiak ipintzen ditu zezen hilketari harro-harro eusteko. Katalunia osoan jadanik Bartzelonako La Monumental plaza gelditzen da bakarrik korridak eskaintzen (18 zezenketa 2008 urtean). Eta Katalunian protesten uhina azkartuz doa: 180.000 sinadura bildurik aste gutxitan zezenketak erabat ezeztatuko.

Alta, hemen ez. Hemen, 2008 horretantxe, 44 zezenketa burutu ziren, eta 357 zezen izan ziren heriotzaraino torturatuak. Izerdia, keru kiratsa, pasodobleak eta *olé* ozenek lagunduta. Noski! Gurean, artean, Francisco Lópezek berriki, abolizioa eskatzen



DANI BLANCO

zutenei erantzunez, hau esan zuen: “*El interés de nuestro gobierno es garantizar que ese espectáculo pueda ofrecerse en Euzkadi, como ha sido hasta ahora, en el respeto y con absoluta normalidad*” (2010eko maiatzaren 7an).

1931n (*O tempora o mores!*) PNVren Sabin Etxeak bere barne araudian hau agindu zuen: zezenketetan parte hartuko zuten bazkideak oro, elkartetik botako zituztela. Iñaki Azkuna hiper-zezenketazaleak, zer dio honetaz? Eta Miguel Sanzek zer? Gora zezenketak! Eta badaezpada zezenen hilketak Nafarroako “*patrimonio cultural*” izendatu ditu. Sanz eta López, eskuz esku, “*du pareil au même*” baitira.

Egun hauetan, Saramagoren heriotzak eta Pessoaaren oroitzapenak Portugalen kultur maila gogorazi dute. Hots, besteak beste, Lisboako Telebistak debekatuta dauka, egun-argiz bederen, zezenketen irudiak eskaintzea.

Ez zaigu aise ahaztuko iaz, Donostiako Bulebarrean, abuztuaren 8an (Aste Nagusia hastera zihoalarik), 20 bat gaztek eskaini zuten ekitaldi ederra. Beren burua biluztuz eta larrua pintura gorritz margotuz, “Zezenketarik ez!” eta “*Bullfight abolition!*” pankartez salatu zuten zetorren zezen hilketa.

Oso interesgarria ere José Luis Orella Unzué historialari nafarrak (*Gara*, 2010eko martxoaren 18an; 11. orr.) jakinarazi ziguna: Eliza Katolikoak berak eskomikatu zituela (XVI. mendean) Fiesta Nacional delakoa defenditzen dutenak, eta zezenketetan parte hartzen dutenak oro. Egun, jakina, axola gutxi zaizkio euskal jendeari eskomikatu horiek. Baina Elizak berak jarrera hori du zezenketen kontra. Askok ez-ikusia giten badute ere.

Amaitzeko Jesus Mosterin bilbotar filosofo eta animalien eskubideen defendatzaile sutuaren artikulua bikaina (ikus *Gara*, 2010eko maiatzaren 30ekoa; 26.orr.) “*Si uno no es ciego tiene que estar en contra de la tortura siempre*”. Eta zezenek korridetan jasaten dutena tortura publikotzat dauka. Jaume Balmes filosofo katalanak egokiro esan zuen: “*El arte es arte, y las corridas de toros no son arte: son barbarie*”. ■

1931n PNVren Sabin Etxeak

bere barne araudian hau agindu zuen:

zezenketetan parte hartuko zuten bazkideak oro, elkartetik botako zituztela. Iñaki Azkuna hiper-zezenketazaleak, zer dio honetaz?